DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Zerbitzu Orokorren Batzordea
Comisión de Servicios Generales

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**32. AKTA**

**Zerbitzu Orokorren Batzordea**

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2026-04-20

**Ordua:** 10:30 h

**Tokia:** Loretope aretoa

**Batzordeburua:** Ana Lopez Loiarte

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Kerman Orbegozo Uribe

Martin Ibabe Eceiza

Olatz Yarza Garagorri

Jabier Vitoria Roma

Markel Ormazabal Gaztañaga

Itziar Iturri Arrazola

Iñigo Garcia Villanueva

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Vanessa Velez de Pablos

Arantza Gonzalez Garcia

**Beste zinegotzi batzuk:**

Victor Lasa Briz *(10:38an bertaratu da bilkurara eta 10:42an joan da)*

Izar Hernando Ibero *(10:50ean bertaratu da bilkurara)*

**Idazkaria**: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Idazkari Nagusiak eskuordeturik.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

**1.- 2026ko martxoaren 16an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

**ACTA Nº 32**

**Comisión de Servicios Generales**

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 20-04-2026

**Hora:** 10:30 h

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside:** Ana López Loiarte

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

Kerman Orbegozo Uribe

Martín Ibabe Eceiza

Olatz Yarza Garagorri

Jabier Vitoria Roma

Markel Ormazabal Gaztañaga

Itziar Iturri Arrazola

Iñigo García Villanueva

Iñaki Gabarain Gaztelumendi

Vanessa Vélez de Pablos

Arantza González García

**Otros concejales y concejalas:**

Víctor Lasa Briz *(se incorpora a la sesión a las 10:38 h y se retira a las 10:42 h)*

Izar Hernando Ibero *(se incorpora a la sesión a las 10:50 h)*

**Secretario**: Iñaki Txintxurreta Perdiguero, por delegación de la Secretaria General.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 16 de marzo de 2026.**

12447n II

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 31. akta, 2026ko martxoaren 16an egindako bilerari dagokiona.

Se aprueba, por unanimidad, el acta número 31, correspondiente a la sesión celebrada el día 16 de marzo de 2026.

**2.- Enpresa batean "prestatzaile" jarduera pribatua garatzeko bateragarritasun-aitorpena ezestea.**

Gaia bototara jarri eta aldeko irizpena izan du, aho batez.

**2.- Desestimación de reconocimiento de compatibilidad para desarrollar actividad privada de "formador" en una empresa.**

Sometido a votación el asunto, es informado favorablemente, por unanimidad.

**3.- Udaleko Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduko Zerbitzuetako funtzionarioen plantilla aldatzea onartzea.**

Gaia bototara jarri eta aldeko irizpena izan du, EAJ/PNV (4), EH BILDU (3), PSE-EE (2) eta ELKARREKIN DONOSTIA (1) Taldeen 10 ordezkariek alde bozkatuta, kontrako botorik gabe eta PP Taldearen ordezkaria abstenituta.

**3.- Aprobar la modificación de la plantilla de personal funcionario de los Servicios de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento del Ayuntamiento.**

Sometido a votación el asunto, es informado favorablemente, con los 10 votos a favor de los/as vocales representantes de los Grupos EAJ/PNV (4), EH BILDU (3), PSE-EE (2) y ELKARREKIN DONOSTIA (1), ningún voto en contra y la abstención de la vocal representante del Grupo PP.

**4.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Alkateak Udalbatzarraren erabakiak betearazteari uko egiteari buruzkoa.**

Arantza Gonzalez andreak interpelazio hau aurkeztu du:

"Elkarrekin Donostia udal-talde mistoaren bozeramaile Víctor Lasak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, alkateak Udalbatzaren erabakiak bete nahi ez izateari buruz, Zerbitzu Orokorren Batzordean azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

2026ko otsailean egindako osoko bilkuran, EH Bildu talde politikoak atxilotuen jatorriari buruzko datuak publiko egiteari buruz aurkeztutako kontrol-mozio bat eztabaidatu eta bozkatu zen, eta mozio hura gehiengoz onetsi zen. Mozioan datu horiek ez argitaratzeko eskatzen zitzaion Udal Gobernuari, eta Udalbatzak gehiengoz onetsi zuen. Hala eta guztiz ere, alkateak publikoki iragarri du atxilotuen jatorriari buruzko datuak argitaratzeko erabakiarekin aurrera jarraituko duela, era horretan, Udalbatzak adierazitako borondatea ukatuz.

Alkateak Udalbatzak erabakitakoa betetzeari uko egin izanak kezka sortu du hainbat talde politikotan eta herritar batzuen artean. Erabakiak zalantzak sortzen ditu Udalbatzak hartutako erabakien

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la negativa del Alcalde a ejecutar los acuerdos del Pleno.**

La Sra. González García presenta la siguiente interpelación:

"Dr. Víctor Lasa, Portavoz del Grupo Municipal Mixto Elkarrekin Donostia, al amparo de lo establecido en el artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, dirigida al Sr. Alcalde de Donostia / San Sebastián, D. Jon Insausti, para su tratamiento en la Comisión de Servicios Generales, en relación con la negativa del alcalde a ejecutar los acuerdos del pleno.

JUSTIFICACIÓN

En el pasado pleno de febrero de 2026, se debatió y votó una Moción de Control presentada por el grupo político EH Bildu, relativa a la intención del gobierno de publicar los datos relativos al origen de las personas detenidas. La moción, que instaba al gobierno a no hacer públicos dichos datos, fue aprobada por mayoría en el pleno. A pesar de ello, el alcalde ha anunciado públicamente que seguirá adelante con la decisión de publicar los datos del origen de las personas detenidas, negando así la voluntad expresada por el pleno.

La negativa del alcalde a cumplir con lo acordado por el pleno ha generado inquietud en diversos grupos políticos y en parte de la ciudadanía. La decisión plantea interrogantes sobre el papel de

eginkizunari buruz eta Udal Gobernuak Udalbatzaren gehiengoak eskatutakoari erantzuteko edo ez erantzuteko erabiltzen duen irizpideari buruz.

INTERPELAZIOA

1. Zergatik erabaki du alkateak kasurik ez egitea Donostiako Udalbatzaren gehiengoak atxilotuen jatorriari buruzko datuak argitaratzearen inguruan erabaki zuenari?
2. Zer helburu politiko lortu nahi du Udal Gobernuak atxilotuen jatorriari buruzko datuak argitaratuz, Udalbatzak horren kontrako iritzia azaldu bazuen ere?
3. Alkateak zer irizpideren arabera erabakiko du, hemendik aurrera, Udalbatzaren zein erabaki onartu eta gauzatuko dituen eta zein ez?
4. Alkatearen ustez, Udal Gobernua Udalbatzaren gainetik al dago, ordezkaritza politikoari dagokionez?
5. Erabaki horrek esan nahi du Udal Gobernuak Udalbatzaren erabakiak bere jarrera edo posizio politikoarekin bat datozenean baino ez dituela aplikatuko edo kontuan hartuko?
6. Alkatearen ustez, Udalbatzaren borondatea ukatzeko hartu duen erabakiak zer nolako eragina sortzen du gure tokiko demokrazian?
7. Alkatearen ustez, zer balio demokratiko dute Udalbatzak hartutako erabakiek, Udal Gobernuak publikoki iragarri badezake ez duela kontuan hartuko Udalbatzaren gehiengoak erabakitakoa?
8. Alkatearen irizpidearen arabera, Udalbatzak zein heinean ordezkatzen du donostiarren borondatea?
9. Udal Gobernuak zer ebaluazio egin du atxilotuen jatorriari buruzko datuen hedapen isolatuak gizartean eta bizikidetzan izan dezakeen eraginari buruz?
10. Udal Gobernuak adieraz al dezake txosten teknikorik, polizialik edo herritarren segurtasunari buruzkorik erabili duen, hain zuzen ere datu horiek argitaratzeak hiriko segurtasuna hobetzen laguntzen duela bermatzeko?

Donostia, 2026ko apirilaren 10a

los acuerdos adoptados por el pleno y sobre el criterio con el que el Gobierno municipal decide atender o no atender lo solicitado por la mayoría de la corporación.

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué ha decidido el alcalde no atender lo acordado por la mayoría del pleno del Ayuntamiento de San Sebastián, en relación con la publicación de datos sobre el origen de las personas detenidas?
2. ¿Qué objetivo político persigue el gobierno municipal con la publicación de datos relativos al origen de las personas detenidas, pese al rechazo político expresado por el pleno?
3. ¿Con qué criterio va a decidir el alcalde, a partir de ahora, qué acuerdos del pleno acatará y ejecutará y cuáles no?
4. ¿Considera el alcalde que el gobierno municipal está por encima del pleno del ayuntamiento, en lo que se refiere a la representación política?
5. ¿Significa esta decisión que el Gobierno municipal solo aplicará o tendrá en cuenta los acuerdos del pleno cuando coincidan con su propia posición política?
6. ¿Cuál es la opinión del alcalde sobre cómo su decisión de rechazar la voluntad del pleno afecta a nuestra democracia local?
7. ¿Qué valor democrático considera que tienen los acuerdos adoptados por el pleno si el gobierno municipal puede anunciar públicamente que no atenderá lo acordado por la mayoría de la corporación?
8. ¿Según el criterio del alcalde, en qué medida el pleno representa la voluntad de la ciudadanía donostiarra?
9. ¿Qué evaluación ha realizado el gobierno municipal sobre el posible impacto en la sociedad y la convivencia donostiarras de la difusión aislada de datos relativos al origen de las personas detenidas?
10. ¿Puede el gobierno municipal señalar informes técnicos, policiales o de seguridad ciudadana que avalen que la publicación de estos datos contribuye a mejorar la seguridad en la ciudad?

Donostia, a 10 de Abril de 2026

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea".

Olatz Yarza eta Arantza Gonzalez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(10:38an Victor Lasa jauna bertaratu da bilkurara eta 10:42an joan egin da)*

**5.- Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, gobernu-taldeak prentsaurrekoak eta aurkezpenak ez itzultzeari buruzkoa.**

Interpelazio hau irakurritzat eman dute:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, gobernu-taldearen prentsaurreko eta aurkezpenetan itzulpenik ez izateari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Tokiko Gobernu Batzarraren ondorengo astearteko prentsaurrekoak eta gobernu-taldeak oro har euskaraz egiten dituen ekimen, ekitaldi, programa eta abarren aurkezpenak ez dira gaztelaniazko azpitituluekin ematen. Horrek mugatu egiten du donostiarrek aurkezten dena entzuteko eta jakiteko duten eskubidea, ez baita Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan edo azpitituluekin ematen.

Gure ustez, horrek Espainiako Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan ezarritako hizkuntza-koofizialtasunaren printzipioa urratzen du, eta euskara ulertzen ez dutenek soilik eskuratzen baitute informazio publikoa, eta horrek gardentasun instituzionalari eragiten dio.

Horregatik guztiagatik, hau da behean sinatzen duenak egiten duen INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez dira aldibereko itzulpenak (azpitituluak) egiten donostiar guztiek beren hizkuntza-eskubideetan berdintasuna izan dezaten eta donostiar guztien informaziorako eskubidea bermatuta izan dezaten?

2. Gobernu Taldeak aurreikusita al dauka egoera hori aldatzea donostiar guztiek hizkuntza-

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia".

Intervienen en este punto las Sras. Yarza Garagorri y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 10:38 h se incorpora a la sesión el Sr. Lasa Briz y a las 10:42 h se retira)*

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de traducción de las ruedas de prensa y presentaciones por parte del equipo de gobierno.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión de Servicios Generales, sobre la falta de traducción de las ruedas de prensa y presentaciones por parte del equipo de gobierno.

JUSTIFICACIÓN

Las ruedas de prensa posteriores a la Junta de Gobierno Local de los martes así como las presentaciones de las diversas iniciativas, eventos, programas etc por parte del equipo de gobierno que se realizan normalmente en euskera no se retransmiten con subtítulos en castellano. Este hecho limita el derecho de los donostiarras a poder escuchar y saber lo que se presenta al no emitirse en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, o con subtítulos.

Consideramos que esto incumple el principio de cooficialidad lingüística establecida en la Constitución Española y en el Estatuto de Autonomía, y que se limita el acceso a la información pública a quienes no comprenden el euskera, hecho que afecta a la transparencia institucional.

Por todo ello, el abajo firmante se formula la siguiente INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son las razones por las que no se realizan traducciones simultáneas (subtítulos) para que todos los donostiarras tengan garantizada la igualdad de sus derechos lingüísticos así como su derecho a la información de todos los donostiarras?

2. ¿Tiene previsto el equipo de gobierno cambiar esta situación para garantizar los

eskubideak eta informazio-eskubidea bermatzeko?

3. Horretarako asmorik badu, noiz?

4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2026ko apirilaren 10a.

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”.

Ana Lopez eta Vanessa Velez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(10:50ean Izar Hernando andrea bertaratu da bilkurara)*

**6.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.**

**6.1.- Galdera, EH Bildu Taldeak aurkeztua, errolda egiaztatzeko prozeduraren inguruan.**

Izar Hernando andreak galdera hau aurkeztu du:

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Izar Hernando Iberok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, galdera egiten dio Ana Lopez Gobernantzako zinegotzi ordezkariari, errolda egiaztatzeko prozeduraren inguruan azalpenak ahoz eman ditzan Pertsonen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Apirilean prentsa bidez jakin genuen Donostiako Udaltzaingoak urtean 1.500 errolda faltsu identifikatu eta bertan behera utzi dituela. Notiziak baieztatu egiten du lehenago ere hainbat eta hainbat gizarte eragilek seinalatu izan duten errealitatea: etxebizitza larrialdi egoera honetan, eskubidea behar lukeena espekulaziorako motibo bilakatzen da, erroldaren bueltan iruzurra eginez eta erroldatzeko beharra duten pertsona batzuen zaurgarritasun egoeretan sakonduz. 2019an EH Bilduk aurkeztutako eta Udalbatzan onartutako kontrol mozio baten harira, Donostiako Udala Udaltzaingoaren bidez errolda faltsuak eta honen bueltako iruzurrak identifikatzeko lanetan dabil. Lan horren nondik norako zehatza, prozedurak eta datuak jasotzeko ekimena da hau.

derechos lingüísticos y el derecho a la información de todos los donostiarras?.

3. En caso afirmativo, ¿Cuándo?

4. En caso negativo ¿Cuáles son las razones para no hacerlo?

En San Sebastián, a 10 de abril de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

Intervienen en este punto las Sras. López Loiarte y Vélez de Pablos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 10:50 h se incorpora a la sesión la Sra. Hernando Ibero)*

**6.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.**

**6.1. Pregunta, presentada por el Grupo EH Bildu, en relación con el procedimiento de verificación del padrón.**

La Sra. Hernando Ibero presenta la siguiente pregunta:

“Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH Bildu, presenta, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente pregunta, relativa al procedimiento de verificación del padrón, a la concejala delegada de Gobernanza, Ana López, para su respuesta oral en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Este mes de abril hemos conocido mediante la prensa que la Guardia Municipal de Donostia ha descubierto y anulado 1.500 casos de falsos empadronamientos al año. La noticia confirma la realidad señalada anteriormente por numerosos agentes sociales: que, en una situación de emergencia habitacional, un derecho se convierte en motivo de especulación, falseando el padrón y profundizando las situaciones de vulnerabilidad de personas necesitadas de empadronamiento. En este sentido, al hilo de una moción de control presentada por EH Bildu en 2019 y aprobada en pleno, el Ayuntamiento de Donostia, a través de la Guardia Municipal, está trabajando en la identificación de falsos empadronamientos y fraudes relacionados con los mismos. Así, esta iniciativa tiene como objeto conocer los

procedimientos y los datos concretos del citado trabajo.

Hori horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako galdera hauek egiten ditu:

- Zein da Donostiako Udalak erroldaren, Udaltzaingoaren eta Gizarte Ekintzaren bidez jarraitzen duen prozedura errolda faltsuak identifikatzeko? Zein neurgailu erabiltzen dira ofiziozko jarduketa abiatzeko? Zein da Udaleko departamentu bakoitzak jokatzen duen papera?

- Zenbat izan dira zehazki identifikatutako eta bertan behera utzitako errolda faltsuak? Identifikatutako kasu horietan, zenbat izan dira bertan behera utzi direnak (esaterako, erroldatutako pertsona ez delako jada etxe horretan bizi) eta zenbat iruzur kasuak direnak (erroldaren merkatu ilegaleko kasuak direlako)? Iruzur edo merkatu ilegaleko kasu horietan, nola jokatzen du Udalak iruzurra egin duenarekin, eta zein prozedura jarraitzen du iruzurra jasan duen eta egoera zaurgarrian dagoen pertsonarekin?

- Prozedura honekin ikus daiteke erroldak balio duela bizitegi egoera desberdinak identifikatzeko. Hasi al da Udala, azaroko udalbatzan EH Bilduren eskariz hartutako konpromisoari jarraiki, logeletan bizi diren familien argazkia osatzen? Hala ez bada, zergatik? Eta abiatu badu, zeintzuk dira datuak?

- Zenbat errolda sozial daude une honetan Donostian? Zenbat luzatzen da errolda sozialaren prozesua eskaera egiten denetik erroldatzen den arte bataz-beste?

Donostian, 2026ko apirilaren 10ean

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Ana Lopez eta Izar Hernando andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe formula las siguientes preguntas:

- ¿Cuál es el procedimiento que sigue el Ayuntamiento de Donostia, a través del padrón, la Guardia Municipal y el departamento de Acción Social, para identificar los falsos empadronamientos? ¿Qué medidores se utilizan para iniciar la actuación de oficio? ¿Cuál es el papel que juega cada departamento municipal?

- ¿Cuántos han sido exactamente los falsos empadronamientos identificados y anulados? En los casos identificados, ¿cuántos han sido casos anulados (por ejemplo, porque la persona empadronada ya no reside en ese domicilio) y cuántos los casos de fraude (por tratarse de casos del mercado ilegal del padrón)? En los casos de fraude o mercado ilegal, ¿cómo actúa el Ayuntamiento con quien ha cometido el fraude y qué procedimiento sigue con la persona que ha sufrido el fraude y se encuentra en situación de vulnerabilidad?

- Mediante este procedimiento se puede observar que el padrón sirve para identificar diferentes situaciones residenciales. ¿Ha comenzado el Ayuntamiento a completar la fotografía de las familias que viven en habitaciones, tal y como se comprometió en el pleno de noviembre a petición del grupo municipal de EH Bildu? Si no es así, ¿por qué? Y si lo ha hecho, ¿cuáles son los datos?

- ¿Cuántos empadronamientos sociales existen actualmente en Donostia? ¿Cuánto tiempo dura el proceso del padrón social entre la realización de la solicitud y el empadronamiento efectivo?

Donostia, 10 de abril de 2026

Izar Hernando Ibero
Concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen en este punto las Sras. López Loiarte y Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

Eta bestelako aztergairik ez dagoela,

Y no habiendo más asuntos, la Presidenta declara

Batzordeburuak goiburuan adierazitako eguneko hamaikak eta hiruan bilkura amaitutzat jo du; eta NIK, idazkari gisa, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

terminada la sesión a las once horas y tres minutos de la fecha expresada en el encabezamiento; de todo lo cual, YO, EL SECRETARIO, DOY FE.

O.E./Vº Bº
BATZORDEBURUA / LA PRESIDENTA

Ana Lopez Loiarte

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Iñaki Txintxurreta (18/05/2026 13:49 CEST), Ana Lopez Loyarte (18/05/2026 14:04 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : HDRV-ZPC1-3ZJH-AZ1S